

“PRINCIPE E VIANA”

SUPLEMENTO EN VASCUENCE
DIPUTACION FORAL DE NAVARRA



Coordinador para el Suplemento
en Euskara
MARCELINO GARDE

XVII'gn. urtea
152 zenbakia

Iruña - 1983 - Maiatza

Fran. conc.
N.º clas. 34/60

Director en func. de la Inst.
Príncipe de Viana
J. JOSE GRAU

Pakerako maia, utsik...

Txinatarren esaera batek dionez –eta txinatarrek antziñatik dakite zer esaten eta egiten duten–, milla itzek aiña balio du irudi batek. Irudi bat, irudia...

Gizonezko bat..., emakume bat..., urrutian galzen den bidean bakarrik..., eta bakardadearen otzak kizkurtzen digu biotza.

Umetxo bat, bakarrik, jendetza aundiaren artean galduta... biotza erdibitzen digun ezpata bezain zorrotza da umezurtz izatea.

Ama bat eta lau umetxo gonatatik elduta, itsaso zabalera begira... Orra or Kantauri aserretuaren ekaitzetan urperatutako arrantzaleen adierazpena.

Sukaldeko maiaren inguruan, maikideak burumakur eta jarleku bat utsik... Ziñez maite zuten norbaiten utsunea nabari da, biotzak urratzen dituen zauri berri-berria: aitarena? seme-alabaren batena? Utsune mingarria benetan.

Mai eder eta zabai bat uts-utsik... Zer-nolako gogorakizunak?

Pakerako maia! Bai, asmo ederra, amets aundia, erri osoaren egarria zen «Pakerako maia» osotu ta biltzea. Iru-lau talderen ordezkariak ziren elkarrekin biltzekoak! Euskalerrri'ko pakearen billa ain zuzen ere, baiña...

Orra or mai ederra utsik, bakar, iñor gabe, goibel eta otz... Milla itzek baiño geiago balio du irudi bakar batek. Orra or Euskalerrri'ko seme-alaben amets aundiak porrot eginda...

Lurralde berean eta elkarren ondoan bizi diren bakardadea, bai illuna ta mingarria, bakoitza bere bidearen bakartasunean galduta bait doa.

Antziñako erri zaar bat, udaberriko amets aundien gaztetasunez berriturik eta bere erritasuna dizdiratsu ikusten duelarik... Baiña bere burua bakar aurkitzen du Euskalerrria'k, aserre ta gorrotoz zaarturiko jendeen eta errien artean.

Itxaropenez eta ametsez, lanerako gogoz eta maitasun-egarriz beterik, pakean eta zoriontsu ibilli nai du gure Erriak, baiña... indarkeriaren eta erreboluzioaren ekaitzek gogorki astinduta dabil urperatzeko zorian.

Utsunearen goibeltasunak illuntzen ba'gaitu... Ilketa ugarien zirrara beltzak, aserre ta gorrotoen lazatasunak astintzen ba'gaitu, gure erria ez daiteke alai ta pozik bizi.

Ezin, eta zailtasun guztien gaiñetik, eragozpen eta etsaitasun guztien artean, eta beti: «Zorionekoak, pake-egilleak!»



EUSKAL ERRIKO LEIOA

Askotan garrantzizkoak izaten dira Naparroa'ko Diputazioa'k artzen dituen erabakiak, baiña guztiak emen euskeraz emate-rik ez daukagu. Zer egin? Aukera bat egingo dugu ale bakoitzean, eta Euskeraren aldekoak, erri euskaldunen eta jende euskaldunen aldekoak direnean, emen argitaratuko ditugu euskeraz.

KONPONKETAK

BAZTAN: Beartzun eta Atxuela'ko bi-deak konpontzeko, 2.500.000 pezeta emanen dizkie Naparroa'ko Aaldundia edo Diputazioak.

LAKUNTZA: Azken-neguan autsirik gertatu da kiroldegi edo kirol-etxeko teilatua. Konpondu aal izateko, 1.528.405 pezta emanen ditu Diputazioak.

LEITZA: Lanbide-eskola edo «Profesional eskola» izenekoak konpondu-bear aundiak dauzka: leioak, iturriak, kanpoko ormak eta abar. Berritze-lan oiek guztiak egiteko, 2.037.424 pezta emanen dizkie Diputazioak.

BERA: Erri ontako Lanbide-eskolan, kaldera bat aldatu ta berria jarri bearra daukate. Ortarako, 214.264 pezta emanen dizkie.

BASABURUA: Basaburua osorako eskola berria eginen dute Jauntsaras'en. Ekintza au aurrera eramango duena, Bizente Taberna Irazoki jauna da, erabakita dagoenez.

GOIZUETA: Zimezketa ta Esolla bitarteko mendi-bidea edo pista konponduko dute bereala. Jesus Alegria Aranburu jaunak egingo ditu lan auek, ain zuzen ere, 252.627 pezta eskuratzearen trukean.

LESAKA: Alkaiaga ta Zalain bitarteko bidea egiteko, 1.373.800 pezta emanen dizkio Diputazioak erriko Udalari.

GOIZUETA: Erriko ikastetxean jolas-to-kiak eta aterpeak berritzeko eta inguruak apaintzeko, 5.518.162 pezta emanen dizkio Udalari Naparroa'ko Diputazioak.

OIAN-EPAITZEAK

BAKAIKOA: Erri ontako Labarga ta Basabea oianetako 161 zugaitz epaitzeko baimena eman du Diputazioak, 914.716 peztaren trukean.

BEUNTZA: Urgainzusi tokian 317 pago ebakitzeko baimena eman du, 1.123.900 peztaren trukean.

LANTZ: Labagota deritzaion tokian 418 zugaitz, aritz eta pago botazeko baimena eman du, 1.776.350 peztaren trukean.

ALDATZ: Zunuztegieta tokian 1.470 pago zugaitz epaituko dituzte, Diputazioaren baimenez, 3.280.800 pezta artze-kotan.

SARAITZU: Remendia izeneko oianean 3.925 piñu epaitzeko baimena eman du Diputazioak, 1.136.160 pezta artzekotan.

IBILTZIETA: Asketa, Eslaga ta Indurpeta izeneko oianetatik 1.567 ler edo piñu epaitzeko baimena eman du Diputazioak, eta ori 758.629 pezta artzekotan.

BEINTZA-LABAIEN: Erri auetako oianetan 1.457 pago markatzeko, ta gero epaitzeko baimena eman du. Guztira, 1.059,98 metro laukitu egur izango dira, ooletarako egokiak eta salneurritzat 2.941.060 pezta ipiñi diete.

HUIZI: Erri ontako Santa Engrazi ta Santa Krutz tokietan dauden 3.245 pago epaitzeko baimena eman du Diputazioak.


APEZPIKU EUSKALDUNA MADRIL'ERA

Orain arte Madril'en apezpikuen buru egon den Tarancon jaun agurgarria, aspalditxo 75 urteak beterik di-tuelako, kargu ori utzi bearrean gertatu da. Ez da guztien gustokoa izan, ez leen eta ez orain. Baiña...ageriko kar-guetatik ixillera doanean, asko ondu da zenbaiten iritzietan.

Eta apezpiku euskaldun bat, Sukia Goikoetxea'tar Anjel, orain arte Com-postela'ko Goi-Apezpiku izan dena, izendatu du Aita Santuak Madril'erako. Au ere ez da guztien gustoko izanen. Asi dira, izan ere, Tarancon goraltzen eta aren ondoan euskaldun beeratzen.

Geroak esango du. Akatsik izango du, bai, baiña baliorik ere bai alor askotan.

duko lukenen bat arkitzea ez litzakela zaila izango.



BELAR ONURAGARRIAK

Euskalerrria, lur ezea landararen or-legitasunaz jantzia.

Onegatik, bada, ez gera arritu irakurtzea lur aberetseenetakoa dela sendagintzarako erabiltzen diren landareaz. Juan Mugarza, izadizale jakintsuak esan duenez, Gasteiz'en Eusko Ikaskuntzak duen aretoan emandako itzaldian, 550 landare oietakoak jaiotzen dira gure lurretan.

PICASSO'REN LENENGO IRUDIA

Picasso'ren lenengo margo-irudia arkitu berriak dira, Malaga'ko etxe batean; irudi ortan, zortzi urte besterik ez zituen garaian egindakoan, Malaga'ko itxas-bazter bat agertzen da.

Irudi orren jabea, 30 milloietan saltzeko prestu dago; baiñan, gai orretan jakiñek diotenez, ipar-amerikarren bategen 300 milloi gaiñeko dirutza ordain-

Euskerazaintza

EUSKERAZAINTZA'k, Euskeraren Erri-Akademia'k, Loraila'ren 28'an egin du Eibar'en bere illeroko Batzarra, Akesolo'tar Lino jauna ezean, Zatarain'dar Anbrosi'ren lendakaritzapean ain zuzen ere.

Aurreko Batzar-agiria onartu ostean, atzizkiei buruzko idazki ta txostenak irakurri ta aztertu ondoren, langintza berezi ontarako Batzordearen esku gelditu idatzi guztien aldakiak azken-erabakirako bidean noski.

Auek guztiak eta gaiñerako akademi-gaiak oso zailak diranez emen laburpen baten neurrietan emateko, beste alor batzuetako arazoak aipatuko ditugu, ulergarriago ere diranez.

Batzarretarako ta beste ekintzetarako ibillietan euskerazaiñek dauzkaten diru-txauketak eta gaiñerako diru-bear aundiak ikusita —eta Euzko Jaurlaritzari aginte-aalmenik aitortzen ez dioten alo-rraan—, «de utilidad pública» izendatu ta erabakirik daukan Estaduko Gobernuari diru-laguntzak eskatzea erabaki du Batzarrak.

DUDEN, irudibidezko iztegia euskeratzeko lanak, aurrera doaz. «ITZ SARIKETA» asterik aste aurrera doanez, orrela landuriko itzak liburu egiñik argitaratzea ere aurrera daramate arduradunek.

«Euskeraren erabilpena arauzkotzeko» Legea dala-ta Madril'go Gobernu-Burua dan Felipe Gonzalez jaunari egindako eskutitzaren aldakia artu ondoren, bai Euzko Jaurlaritzak eta bai Euskal Lege-gintza-Biltzarrak igorritako esker-agiriak artu ditu Euskerazaintza'k.

Aberastasun au gordetzen alegindu bear gaituzute. Bide batez, alperrik galdu bearrean, jakin dezagun gure lurraldea eder eta apaiña iraun-arazten.

NAPARROA'KO ERESERKIA

Orain 50 urte direlarik, 1933'ko Loraila'ren 10'ean, egunkarien batek gauza bitxiak idatzi zituen. Esate baterako, Naparroa'ko ereserkiari buruz. Onela agertu zen orduan:

«Iruña'ko Eresbatzaren zuzendari trebea den Silbano Cervantes jaunak antolaketa berezi bat egin dio Naparroa Erreinuko erri-ereserkiari. Eta, bearezko diren ikasketak egin ondoren, diskoan aterako dute. Bazen garaia! Aurrerakoan entzun aal izango dugu, noski, irratietako saioen amaieran edo azken-agurra egitekoan; jakiña, Gipuzkoa'n beren «Gernika'ko Arbola» doiña jotzen duten era berean».

Antziñako garaietan, egia esan, noizean bein bakarrik jotzen zuten ereserki ori, au da, Diputazioa bere osotasunean agertzen zenean, eta gutxi geiagotan. Erriak, beraz, oso gutxitan entzun zeza-kean.

Luzaroan oso ixillean egondako doiñu alai ta sarkorra, gure Erreinuko erri-ereserki bizigarria, askotan entzun izan dugu geroztik, zorionez entzun ere. Bai, jarrai dezatela aurrerakoan ere, gure antziñako euskal-sena ta giroa gure barne-muiñetan sortzen eta in-dartzen.

AITA SANTUAK BERE URTEBETZEA



Loraila'ren 18'an bete zituen gure Aita Santu Juan Paulo II'gnak bere 63 urte aundiak. Zorionak benetan, bere seme-alaba leialen izenean.

MAIATZE'KO AUTESKUNDEAK EUSKALERRIA'N

Beste lekutan bezala, auteskundeak izan ditugu Euskalerrria'n ere, errietako kargodunak autatzeko; aldi berean, Naparroa'ko Parlamentariak eta Araba, Bikai ta Gipuzkoa'ko Biltzar Nagusieta-koak.

Españaia, ia guztiz, sozialista agertu zaigu; Euskalerrria, berriz, abertzalea, ia-ia jeltzalea gure Naparroa alde batera uzten ba'dugu. Ona emen gauza bera argiagotzen diguten zenbakiak:

BILTZAR NAGUSITARAKO ETA NAPAR PARLAMENTURAKO AUTATUAK

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	NAPARROA
AP	9	4	1	8
EE	1	2	3	—
HB	5	6	10	6
PNV	22	26	25	3
PSOE	14	13	12	20
UPN	—	—	—	13
	51	51	51	50

NAPAR PARLAMENTARIEN IZENAK, TALDEKA

PSOE	UPN	AP	HB	PNV
Urralburu, G.	Bados, B.	Monge, J. L.	Aldekoa, I.	Cabases, I.
Arbeloa, V. M.	Viguria, A.	Pejenaute, P.	Arce, P.	Ciáurritz, F.
Aragón, A.	Del Castillo, J.	Catalán, J. J.	Alemán, A.	Barberia, P. M.
Zabala, J. R.	Gurrea, R.	De Miguel, P. J.	Iraeta, J. M.	
Ancizar, M. A.	Andía, A.	Del Burgo, J. I.	Ilundáin, F. J.	
Asiáin, J.	Zubiaur, J. A.	López, J. I.	García de Dios, A.	
Ezpeleta, J. M.	Alli, J. C.	Ayesa, C.		
Oslé, C.	Medrano, L.	Jiménez, L.		
Otano, J.	Basterra, A.			
Ruiz, J. A.	Gortari, J.			
Pérez, R.	Viñes, J. J.			
Lebrero, A.	Escribano, A. L.			
De Miguel, A.	Los Arcos, J. M.			
Boulandier, E.				
Lora, F. J.				
Elizari, M. S.				
Ardaiz, P. J.				
Paredes, J. J.				
Martínez, R.				
Vital, F. J.				

Asteazken guztiz egiten du jendearen aurrean bere mintzaldia, oiturazko jardun ezaguna. Egun ontan, ain zuzen ere, 40.000 lagun bildu ziren Aita Santuaren itza entzuteru. Ainbesteren artean, zin-ziñez zorion-agur bero ta gartsua egin zioten txaloka ta goraka. Ez da arritzekoa.

Eskerrik onenak agertu zizkien be-
rak guztiei, alaiki ta biotza beratuta. Urte luzez gorde dezaigula zeruko Jaunak.

MAIATZE'KO LEENA LANGILLEKIN MAKILKA POLONIA'N

Ez siñestakoa da, baiña egia; «langi-
leriaren diktadura» pean erori diren

errietan, langilleak ez dira nagusi; ez dute ere karriketara ateratzeko eskubiderik, beren eskubideak eskatzera.

Maiatzaren 1'go egunean, Polonia'ko urietan, nagusietan batez ere, borroka ugari izan dira ango karriketetan. Alde batetik, «Maiatza'ren Leena» ospatu ari ziren langilleak; au da, alde batetik, debekatutako «Solidarnosc» Sindika-toaren langilleak, beste aldetik Agintari komunisten indarrak. Ta beste lekutan bezala, antxe ere, makilka ta tiroka langilleekin.

Lech Walesa'k esan du: «Makilka ibilli gaituzte; izkillu-indarra daukate aiek, geurok ditugu eskubidea ta el-kartasuna».

65 URTEZ GORAKOENTZAT DIPUTAZIOAREN LAGUNTZA

Bizitzeko diru-bearrean diren eta irurogei ta bost (65) urtez gorakoa diren guztiei, ematen dizkieten diru-laguntzak jasotzea erabakita dauka Nafarroa'ko Diputazioak. Leen illeko 5.550 pzta. artzen zituztenei, orain 1.950 pzta. geiego; beraz, bakoitzak 7.500 pzta. artuko ditu illean edo ama-lau (14) onelako urtean.

Diru-laguntza auetakoak leen ere banatzen zituen Diputazioak, baiña urtean 500.000 pzta. baiño gutxiago biltzen dituzten familietarako.

Aurrerakoan, 750.000 pzta. illean, 750.000 pzta. baiño geiagorik irabazten ez duenak, eska dezake laguntza ori.

MUGA BATEN BI ALDETAN

Auteskundeak ditugularik, gauza miresgarriak ikusi bear ditugu. Adibidez, beste aldeko Endaia'n Udaletxe-rako Auteskundetara aurkeztu ziren Daniel eta Jacques Allom anaia; autatuak gertatu ziren, bata sozialista, bestea RPR'koa; baiña, ango Legeak debekatzen du bi anaxa erri berean zinegotzi egotea.

Zer, ordea, gure alde ontan? Badi-tugu Nafarroa'n ere bi ta iru anaxa, bakoitza bere taldekoa, Udaletxe bat-zuetan; orra or, Luzaide'n Arrosagaray Martin, Grazian eta Juan Pedro. Pakea zuekin, adiskideok!

IKASTOLEN EGUNA BILLABA'N



Nafarroa'ko Ikastolen Egunean, neska-mutillak kalera, pozezko ibillardian

Aurten ere, urte orotan bezala ospatu da Nafarroa'ko Ikastolen Eguna. Berrogeitairu ikastoletatik beste orrenbeste talde bildu ziren Billaba'n; esanik gabe, aurtengo Eguna atsegingarri zela bai aur, irakasle ta gurasoentzat ere.

Gisa ontako billeretan, lenago Meza Santua, bertan «San Fermin Ikastola»'ko Abesbatza ari zelarik. Gurasoak eta jendetza aundia bildu ziren Billaba'ko Plazan, anitz lekutatik etorri ziren Taldeei arrera ezin ohea egiteko; or agertu ziren Urdiain, Etxarri-Aranatz, Arbitzu, Ilunberri ta beste ta beste.

Nafarroa'n Euskararen egoera txarra azaldu zuten, bertsoan eta trebetasun

aipagarriaz, Ernani'ko bi bertsolari «txikiek».

Geroago, dantzak: Urdiain, Etxarri, Arbitzu, «San Fermin» eta «Paz de Zinganda» Ikastoletako Taldekoak. Eta Larrain-Dantza, Muti-Dantza, Lantz'eko Zortzikoa...

Anai-arteko bazkaria. Ta bazkal-ondoan, ariketak, jolasketak, «kiliki» ta guzti...

Bi xede adierazten dizkigute Nafarroa'ko Ikastolek jai-eguna au antolatzetan: lenengoa, ikastoletako aferetan dabilzenak egun oso batez, urtean bein, elkartzeko aukera izatea; bigarrena, Nafarroa'ko errebindikazioak bein da berriz esan da esan: bear den laguntza, Nafarroa'n euskaldun izateko eskubidea aurrera eramateko.

«Aundiek» arrazoirik ez dutenean...



Errusia'ko Agintariek giltzapean daukaten Schcharansky Jaunaren emaztea ausarki aurkeztu zen Madrid'en «Conferencia de Seguridad» izenekoan.

Aspalditik or ari dira nazio askotako ordezkariak «Conferencia de Seguridad» izeneko batzarretan zerbait egin nairik. Illabeteak badoaz, baiña pakearen aldeko erabaki aundirik ez dute artu.

Lorailla'ren 6'an Batzar-gelara sartu zan errusitar emakume bat, jatorriz judutarra ta senarra espetxean daukana: Avital Schcharansky izeneko. Ona emen emakumearen itzak:

«Nere senarra ta beste judutar asko zeñen gaizki dauden URSS edo Errusia'n gogoraztera etorri naiz... Batzar auek, giza-eskubideen aldeko lanean ari dira ta orregatik nator onuntza, nere senarra ta beste zenbait judutar zeñen gogorki zigortuta dauden salatza. Eta URSS'etik ateratzen uzteko eskatza».

Gauza bidezkoagorik, zer? Baiña URSS'eko ordezkariak, emakume ura batzar-gelan ikusi zutenean, usu demonio atera ziren andik. «Aundiek» orixe egiten dute, ume lotsagabearen antzera: arrazoirik ez daukatenean, ateari ostiko eman eta iges.

Nola-nai ere, alperrikakoa ez zen izan Avital orren agerpena. Izan ere egun gutxi barru, Lorailla'ren 18'an, Estrasburgo'n batzar-turik zegoen «Parlamento Europeo» izenekoak erabaki au artu ta zabaldu zuen:

«URSS'eko Agintariei gauza garrantzizko batzuk eskatzea, adibidez, ain gogor ez zigortzeko, iritzi ez-berdiña izatea beste errurik ez dutenak. Eta besteak beste, Sajarov jakintsua, Yuri Orlof eta Avital'en senarra, bereala askatzeko ta bidaltzeko beren lanetara».

Gizentasuna (kalteak)

MEDIKU ZAARRA



Gizentasunak kalte asko dakarkigu osasunarentzat. Kalte askoren artean txarrena bizitza moztea da; au da, gizenak leenago iltzen direla, gizenak ez direnak baiño. Ta beste kalteak ere txarrak benetan; ona emen kalte zerrenda bildurgarria:

1. Biotzeko kalteak.
2. Odolaren ibillerako kalteak edo zirkulaziokoak.
3. Odol-zain aunditzeak (barizak).
4. Tensiyua igotzea.
5. Diabetes edo gozo-eria.
6. Ezur-giltzaduretako desgastea edo erreuma.
7. Gorputz auldadea eta beste gaitz askoren laguntzalle arrixkugarria.


Banan banan eta arin-arin bederik aztertu ditzagun zerrenda ortan agertu ditugun kalte bildurgarriak.

BIOTZEKO KALTEAK

Gizentasunak dakarkin gaitz bildurgarrienetako bat biotzean sortzen da. Aspaldi batean uste zen, biotza bera koipez beterik gelditzen zela, ta bear bezala lana egiteko gauza etzela. Gaur badakigu, gauzak ontara gertatzen direla.

Gizentasunak berak dakar gutxi ta astiro ibiltzea, ta askotan geldi egotea; ta orrek, biotzaren auldadea dakar, biotza ez bait da bear bezala astindua izaten. Adibidez badakigu, aizkolari baten besoetako muskulo edo aragi-giñarrak, sendo eta indartsu biurtzen direla, lanak eta nekeak eraginta; ta berdin-berdin bizikleta edo txirrindan dabillenaren aztal-izterreko aragi giñarrak. Biotzaren aragi-giñarrarekin orixe bera gertatzen da, ta oso biotz indartsua eukitzen dute, deporte edo kiroltzale guziak. Ta jakiña, biotzari len gutxi eragin, eta alperkerian eroriz gero, gizentasunak beartzen duen bezala, orduan, biotzeko aragi-giñarrak egunetik egunera aultzen joaten dira, ta lanerako gauza ez direla gelditzen dira.

Beste aldetik, gizenak, oso pisuak, astunak izaten dira, ta batera ta bestera ibiltzean, biotza lan geiago egitera beartua egoten da; alde batetik biotza aulduta, ta bestetik, lan geiago egitera beartua...: nai-ta-nai-ez, arnas-estua ta eziña sortu bear zeozer egiten asi ordurako.



ODOLAREN IBILLERAKO KALTEAK EDO ZIRKULAZIOKOAK

Odol-zaiñak bere onetik ateratzen dira; askotan zain oien barruko paretak koipez itsatsita arkitzen direlako, odolaren ibillerak, bere joan-etorri zaillago biurtzen joaten dira, pasadizu ego joan-lekuak extuago biurtzen direlako; odolarentzat leku gutxiago gelditzen delako.

Ta badakigu, odol zain oiek gorputzaren zati guzti-guztietan banaturik arkitzen direla; bai biotz mamian, bai buruko muñetan, bai auka-aztaletan, eta beste leku guzietan. Ta bidezkoa denez, nungo odol-zañak ondatu, ango gaitzak edo kalteak agertu bear. Orren-gatik odol-zain ondatze ori biotz barruan gertatzen denean, antxen agertzen dira infartoak; ta orixe izaten da gaiz ori, biotz-mami zati bat ilda gelditzea, bertara, odol-ziñaren bat itxi dela-ta, bear diren janari ta oxijenuak zati artara irixten ez direlako; ta ildako zatia pusketa txiki bat besteriz ez baldin ba'da, or nunbait; baiñan pusketa aundi xamarra denean, orduan eriotza bera antxen izaten da. Orra, ba, nola gizentasunak, koipe gelegiak odol-zaiñak ondatuz, nolako kalte bildurgarriaren sortzalle izaten de.

Ta buru-muñetako odol-zain txikiren bat koipeak ondatzen duenean, orduan buruko gaitzak agertu bear; batzuetan mintzamina, entzumena edo ikusmena galduz, perlesia ere bai, gorputz alderdi bat era bat gelditzen dela, ikararik ere egiteko gauza ez dela. Beste askotan berriz, burua arintzen da, delako «falta de riego» edo, odol-garastadak muin barrura irixten ez direlako. Gure muiñetan, baratz eta zelaietako lurrrarekin bezala gertatzen bait da; oietan belarrak eta landareak pixkor-pixkor irauteko, bear bearrezkoa izaten dute, tarteka-tarteka, ura, bustitasuna, ta urparrastandiak artzea.

Odolaren eginbearra izaten da, alde batetik, bizitasuna ematea berak daramazkin janari ta oxijenoaren bidez; ta beste aldetik berriz, ondakiñak jaso ta txisaren bidez kanpora atera; lana egiterakoan, izerdi nekearekin batera, beste ondakin asko sortzen bait dira; batzuk txisatik zear kanpora ateratzen direla, urtsuak direnean; ta besteetan berriz, gogorak, urtsuak ez direnean, esteetako eginkaiekin aterako dira kanpora. Orra, ba, or, odol zaiñen garrantzi aundiko eginkizuna; ta gizentasunaren koipeak, ekintz ongarrri ori arrixkuan jartzen dute; odol zañei, beren biguntasuna ta leuntasuna galdu araziz.

Ta okerkeri oiek anka-aztaletako odol-zañetan gertatzen direnean..., gangrena ez da urruti ibiltzen. Kaleetan kurpildun alkietan ikusten ditugun ankamotz asko, orrelako gaitza eukitakoak izaten dira.

EUN URTE MARX IL ZELA

ASTEKARI



Londres'ko leku paketsu batean, K. Marx'en illobia

Karl Marx 1818'an jaio zen Alemaniako Treveris urian eta 1883'an il zen Londres'en. Aren eriotzako 100 urteak direla-ta, ospakizun asko izan dira an eta emen. Guk ere ez dugu aipatu gabe utzi nai. Egia esan, Marx eta aren idaztiak etorri direnez gero, mundua ez da leen bezalakoa: aldaketa handia gertatu da.

Besteak beste, Marx alemaniarren meritua ontan dago: gizarteko mailla batzuen eta besteen ar-

teko borroka -gazteleraz «LUCHA DE CLASES» deitua- aurkitu zuen eta aztertu. Garrantzi handia eman zion, gaiñera, borroka oni. Bestalde, gizarteko ta politika-alorreko gertakizunetan, garrantzi ta indar izugarriak aitortu zizkion ekonomiari.

Ori orrela gertatzen denik mailla bietan, ezin ukatu. Baia arazo ta borroka oiei, zer-nolako aterabidea eskeini zien? Eta ortantxe dago koska. Batetik, ekonomiari bakarrik egozten dio gizarteko oker guztien

iturria; eta ori geiegizkoa da. Bestetik, gizarte-borrokaaren aterabidea, egia esan, borroka berean ipintzen du: au da, gizarte-mailla batek beste borroka menperatzean, langilleak burgesia bota ta oinperatzean.

Orain beintzat ez diote geiegi jarraitzen Marx zaarrari, ezta komunistek ere. Egia esan Marx eta aren itzak geienik aotan darabizkitenak, ez dira marxistak berak, bestelakoak baizik. Baiña, eztabaidak eztabaida, Komunisten borrokadak aurrera jarraitzen du.

Marx oso atzean utzirik, beste bide batzuetan aurrera jo zuen Lenin'ek. Urrena, berriz, Mao txinarrak landu zuen marxismoaren sustraia, borroka beste era batera antolatuz eta ezbaiketa edo dialektikaren ondorioak argituz. Eta gaur zer? Mao'k irakatsitako bidean aurrera doaz, «**borroka irabazteko bideak eta arauak**» ekintzara eramanez. Egia esateko, zientzia edo jakintza alorrean eta filosofi-maillan, beñere ez da gaur bezain lotsagarri egon marxismoa, baiña aldi berean ezta gaur bezain indartsu ere bere ekintza ugarietan mundu osoan barna.

Ama Teresa biziaren alde

ASTEKARI

Lorailla'ren 23'an Madril'en ibilli zen «Kalkuta'ko Ama Teresa» izenez ain ezaguna den emakume arrigarria. «Acción Familiar» deritzaion elkarteak arentzat erabaki ta gertutu duen saria jasotzera eldu zen Madril'era.

Madril'go alkatea, Tierno Galvan da, PSOE'koa ta bere pentsakeraz marxista, baiña arrera ona egin zion Teresa emakume bitxi oni. Ordu-erdiz izketatu ziren elkarrekin. Baiña zertara joan zen alkate orrengana? Enparantza Nagusia utzi zielako, jende-biltze handia bertan egin zezaten, eskerrak ematera joan zen.

Bestalde, etxerik gabeko milla lagun babestu aal izateko, ostatu edo babestetxe aundi bat egin nai dutenez, Tierno Galvan alkateari, baimenak eta agiriak aalik laisterren antolatzeke eskatu zion.

Beste gauzen artean, onela esan zion Teresa'k: «Guztia Jesus'enganako maitasunez egiten dugu ta Ebanjelioa maite dugulako». Eta onela erantzun zion alkateak:

«Orixe da biderik onena gauzak ongi egiteko».

Irudi polit bat eman zioten saritzat, baiña baita diru-pillaren bat ere, beartsuei ta gurasorik gabeko umeei laguntzen jarrai dezan.

Gogoan artzekeak dira zin-zinenez Teresa, emakume txiki bezain argi ta kementsu onen itzak: «Aur bat bakarrik ere ez dadilla maitasunik gabe gertatu... Bai negargarria dela, jaio gabeko aur bat, deseginda gertatzea! Jaio gabeko aur txiki bat desegitean, maitasuna ta pakea desegiten ari zerate... Buruan ez dago sarterik, gu lasai bizi gaitezen, aur batzuk il bear izatea».

«Aurrik ez il, umerik ez desegin! Ekarri ezaizkidazute neri. Nik maite ditut aurak, nik zainduko ditut, eta elkarrekin biziko dugu bizitza alai... Beartsuak bai direla gai, maitasuna zer den guri erakusteko! Onela, bada, ez dut sekulan emakume beartsurik, bere aurra iltzeko gai danik ikusi».

Beste itz auek ere: «Zuen elkar-

tearen saria artzera nator, baiña batez ere guztion otoitzak elkartzera etorri naiz. Eta guztion ekintzak elkartzera etorri naiz, biziaren alde kementsu jokatu aal izan dezagun».



Ama Teresa, emazteki berezia, zeru-lurretan ongi ezagun eta maitatua.



Bertsolaritza

Gure lurretako landarea dugu bertsolaritza: ez inñundik ekarria, bertakoa baizik, emen bertan sortu ta bertan iraun duena. Noizko denboretatik ditugun bertsolariak eta koblarriak Euskalerrria'n, nork daki?

Eta ez dira gizonezkoak bakarrik izan. Gogora ekarri besterik ez daukagu Lastur'ko andre Milia, ala Martin Bañez'en alarguntsa. Beren biotzeko zauria ta erantzuna edo ordaiña emateko gogo bizia agertzen dituzte arako itz zorrotz aietan: «Mondragoe'ri artu deusat gorroto», eta «Erreko dot Aramaio guztia...»

Eta ez dira atzoko kontuak: XV'gn. mendekoak dira.

Bertsolariak ez al ditu izan gure Euskalerrriak bere abotsa, bere irrintzia? Bertsolariek abestu dituzte ongienik erriaren kezak eta pozak, dirala bizitza ta eriotza, maitasuna ta aserrea, ardoa, pekatua, oiñazea... Eta ez dituzte nolana abestu: erri-senak egiten zien argira ta ematen zien garraren berotasunez abestu dituzte erri-giroaren agerpenik sakonenak.

Gurea ez den mundu-giroak inguratzen gaitu, ordea, oraingoaldi auetan: euskalduna ez den giroaren eragiña ari zaigu alde guztietatik sartzen gure sukalde-barneetaraiño. Euskaldun ez diren zabalkunde ta albiste-bide indartsuak ari dira gure inguruan.

Giro ontan jakingo ote dugu euskaldunok ain gurea den bertsolaritzari sendoki eusten? Gurea bazterturik, berrikeria arrotzetara ez ote gaitu eramango giroaren bultzadak?

* * *

Bertsolaritza

Bertsolaritza

Bertsolaritza

Bertsolaritza

Bertsolaritza



JESUS GAZTAÑAGA



«Badatoz bertsolari gaztetxoak. Or ditugu Perez Mendizabal azpeitiarra, Sarasua anaiak Lenitz aldean, eta Eizmendi ta Aristorena Ernani'ko «Urumea» Ikastolan, nabarienak bakarrik aipatzeko». (CARLOS argazia).

Sortu dira, egia esan, eta ari dira lanean «bertsolari-eskola» izeneko saioak. Zenbait Ikastolatan ari dira bertsolari-giroa sortzen eta bertsolaritza ezagutu-erazten. Gaztetxo ta gazteen artean zaletasuna piztutzea lortu dute dagoeneko, eta ez da gutxi.

Aurrera begira ta etorkizunari aurpegi emateko eran gertutu bear du gaurko bertsolariak. Jakingo ote du, ordea, euskal-senaren argira jokatzeko, eta antziñakoengandik datozkigun irudi, burutapen, gogoraikizun eta gizabidean oiñakoengandik datozkigun irudi, burutapen, gogorakizun eta gizabidean oiñarriturik, erantzun egokia aurkitzen oraingo arazo ta bearrereri?

Naparroa'n ere indartzen ari da bertsolaritza. Ona emen adierazpen garbi bat: Naparroa'ko emeretzki bertsolariren artean jokatzeko ari bai-dira txapelketa: Iruña'n, Elizondo'n, eta azkena, berriz, Bee-Naparroa'ko Donibane Garazi'n jokatuko dute Ekainillaren 12'an.

* * *

Gora euskal-bertsolaritza ta gora gure bertsolariak! Eutsi dezaigun guztiok bertsolaritzari, gure erriaren arnas bizigarria bai-da.

Joxe Zapirain

EGI'TAR BI

Joxe Zapirain Aranburu, Juankruz Zapirain Etxeberria'ren anaia zen. Joxebixente Zapirain Esain'en semeak biak; eta, irurak, errederiarrak.

Joan den illean Juankruz eta bere «Jenobeba'ren Bizitza» izan genituen gure illeroko bertso-mintzaketa'ren gai. Oraingo ontan Joxe eta Joxe'ren bertsoetaz itzegingo dugu.

Aita batenak, baiña bi amaren semeak izan ziren Juankruz eta Joxe. Juankruz'en ama Pilliparramona Etxeberria, Astigarraga'ko alaba, izan zen. Joxe'rena, Marijoxepa Aramburu, Oiartzun'goa. Joxebixente'ren aurreneko emaztea Juankruz jaiota bereala il bait zen.

Bi andre oietatik amaika ume izan zituen Joxebixente'ek. Zortzi Pilliparramona'renak; iru Mairoxepa'renak.

Joxe'k ere famili ugaria izan zuen: bederatzi seme-alaba; eta txikiak bi edo iru illabete zituela il zitzaion emaztea. Gorriak ikusi bearrean arkitu zen gizaajoa, berak esango digun bezala.

* * *

Oso bertsolari onak ziren bi anaiak, eta oso ezagunak dira gaur jakintsuen artean ere, beren izenak Lekuona'tar Imanol jakintsuak egin bait zituen ospetsu jende ikasiaren artean. Baiña baserrietan, erriko jende xearen artean, leendik ere ongi ezagunak eta bikaintzat artuak ziren biak, eta bereiziki Juankruz, «Jenobeba'ren Bizitza»'ren bertsoei eskerrak.

Baiña, naiz bere anaia bezain ezaguna izan ez, ura bezain ona da Joxe ere, eta, bear ba'da, ura baiño ohea ere bai, bertsolari bezala beintzat.

«Kardaberaz Bazkuna» Lekuona'ren idazlan guztiak argitaratzen ari da. Bilduma orren bigarren tomoa bertsolariari buruz idatzia da; eta bertsolarietaz zerbait jakin nai duen guztiak, naitanaiez irakurri bear du tomo ori. Eska'zazu Tolosa'ko «Libreria Técnica de Difusión»'era.

* * *

Zapiriain anaien meriturik aundienak auek dituzu:

IZKERA ZORAGARRIA, gauzak esateko era jatorra, txukuna, zearo errikoa, baiña polita, dotorea. Ara, adigarri bezala, aien esaldi batzuek. Guk, «obispoak arpegi alaiarekin itzegin zien», esango genduke. Aiek ordea, «**arpegi-laño alaiarekin**»:

«**Obispo Jauna sartu zitzaien guraso prestu aieri, arpegi-laño alaiarekin itzegitera bieri.**»

Begira zeñen esaera polita:

«**Ez da izandu, ez da izango, ez da munduban dagonik, mingañez ango pasadizua esplikatuko duenik.**»

«Zearo ederra» esan bearrean, ara zeñen poliki:

«**Jendearentzat guzizkoa zan aren eriotza ona.**»

«Egun guzian ibilli ziran» esan bearrean:


«**Amairu gizon, zaldi gañean, joateko ziran prestatu; goiz-arratsari lagun egiñaz, ala're ez ziran aspertu.**»

Eizaketa dotore baten asiera esan ote diteke dotoreago?

«**Jan, edan, morroi, oñez ta zaldi, joan ziran bide luzean, zakurrak bota basuan eta asi ziraden eizean.**»

BIOTZEKO SENTIMENTUAK itzik eta erarik egokienean agertzeko berdiñik gabeak izan ziren Juankruz eta Joxe. Ta Joxe, bertsolari bezala, azkartasunez, ezteñez, ziria sartzeko yayotasunez, anaia baiño geiago ba'zen, biotzeko sentimentuak jendeen biotz muiñetaraño sartzeko geiago izan zen Juankruz. Euskalerra guztian esaten zen, aren «Jenobeba» negar-egin gabe irakurtzerik ez zegoala, eta Juankruz'ek berak esaten zuen, berriz, ezin izaten zituela emazte illari jarri zizkion bertsoak kantatu, jendea negarrez asten zitzaiolako beti.

Joxe'k ere bazekien sentimentuak azaltze ori. Orain irakurriko dituzun bertsoak, bein «Basarri»'k irratiz (radioz) kantatu zituen, eta nola gustatu zitzaizkion jendeari! Amarnaka karta iristen omen zitzaizkion egunero Euskalerra guztitik «Basarri»'ri bere baserrira, bertso oiek eskatuz. «Ezekoa ematen asi bear izan nuan azkenean —dio «Basarri»'k— lan orrek denbora lastimagarria lapurtzen zidalako. Nik ez dakit zenbat kopi atera nitun jendea atsegintzeko».



Beste denboretako Errenderi xarmangarria. (AUSPOA irudia).

A l a r g u n a

JOXE ZAPIRAIN



Kantak jarriko ditut artzen ba'det betik,
neri gertatu zaidan motibuagatik.
Ez det esango eiten ez zirala faltik:
biyotza kontsolatu ezin penetatik!
Iya atera nintzan nere onetatik.

Nere sentimentuak bear ditut esan;
suerte txarrerako mundu ontan izan:
gripek arrapatuta emaztea il zan;
errezatutzen diyet al dedana elizan;
beratzi semerekin alargundu nintzan.

Semerikan zarrenak ditu amalau urte,
ta gaztienak berriz, iru illabete;
oiek, gobernatutzen lana badaukate;
nik emazia illa, ez det gutxi kalte;
prueba egin dutenak sinistuko dute.

Gogoak ematen dit adieraztia
nola gelditu zaidan famili guztia;
nik esan ditudanak gezurrak ez dia,
gripek arrapatuta il zan emazia...
Oraingo bertsu auek naiko penaz dia.

Ez naiz gezurtia ta kristau burlotsua,
alargun gelditzaia ai zer erasua!
Bizi-modu klase au ez da erosua;
urrikalgarria ta franko penosua
ume txiki askokin dagon gurasoa.

Jendeari emango diyot aditza,
orain probatuko det zer dan bizitzia;
kasikan obe luke kristabak iltzia,
ez ume txikiyakin orla gelditzaia;
ai, gauza tristia da alargundutzia!

Ez diot desiatzen munduan inori
neri gertatu zaidan deskalabru ori.
Errezatutzen dizkat Ama Birjiñari
egunian bi aldiz zazpi «Agur Mari»,
arren, pazientziya emateko neri.

Ai zenbat gizon ta andre gazte famili
au goguan dutela ez dira ibilliko;
orla bakartutzia inork ez du naiko;
gu biyok bizitzaia ez zan konbeniko,
bestela Jaungoikoak ez ziñuen ilko.

Esango det jendiak nai ba'du aditu,
beratzi seme nola zaizkidan gelditu;
lengo bizimodua nai nuke segitu,
pazientzi onian pasako ba'nitu,
erremediyo danak Jainkuak baditu.

Jaungoikoak badauka guziyen kontua;
beratzi semerekin nintzan sonatua;
deskalabru onekin nago penatua,
familiya dadukat franko banatua,
emaziaren faltan desordenatua.

Sekulan ez det artu ainbesteko penik,
eta ez derizkiyot artuko dedanik;
barkaziyua eskatu beregana joanik,
azkeneko partidian bi musu emanik,
geiago itzegiten ez daukagu lanik.

Beti pena bat daukat au gogoratzen,
ateratzen ez dana, nere biotzian:
nola deitu ninduben ark eriyotzian...
Azkeneko enkargua auxe eman zian:
errezatu nezala artaz pentsatzian.

Ez izan gezurra dan errezclurikan;
begitik ezin kendu negar malkorikan.
Ez daukat festik eta dibertsiyorikan;
kasi gabian ez det egiten lorikan.
Inundikan ez daukat kontsuelorikan.

Barrengo tristurarik ezin det bialdu,
nere estadu ontaz zein ez urrikaldu?
Lengo bizi-moduai nai nioke eldu,
esperantzarik ez det oraindikan galdtu.
Jainkoak aren falta ordainduko al du!

Len polliki giñanak, franko aldrebestu:
baten faltan guztiyak nola geran nastu!
Nere biyotzik ezerk ez lezake poztu:
beti pentsamentu bat, eta ezin aztu;
mundu onetan inork gusterikan ez du.

LEN AMAR LAGUN GIÑAN ETXEAN

Sentimentu asko daukat nerekin
orain kantatu biarrak,
ez dakit nola zuzenduko 'iran
egin dituzten okerrak.
Pazientziarik ez na' atera,
Jaungoikoari eskerrak:
leku askotan jarri dituzte
tristura eta negarrak:
len amar lagun giñan etxian
ta orain iru bakarrak.

Atenziyua izan zazute
nik esandako itzakina:
nere biotza ez da poztutzen
dirua eta gauzakina:
bi seme illak, beste bi preso,
beste bi non dan ez jakin;
milagro ez da ni egotia
kuidado eta kezakina.

Adierazi biar dizutet
dizutet egia ziñez,
tristura ontatik inola ere
apartatu al ba'giñez,
atenziyua izan biagu
errezo asko egiñez.
Bi seme illak, beste bi preso,
beste bi non dan jakin ez:
nere biotza tristuran dago
ezin sendaturik miñez.

Milagru ezta pena aundiya
izatia biotzian;
negar malkuak saltatzen zaizkit
inoiz gogoratutzian:
ezeren mantxik eta batere
kulpa gabiak bi il zuan,
beste bi preso Ondarreta'tik
San Kristobal'a joan zian...;
zer kontatua izango duten
elkarrengana biltzian!

Orra zer lana ekarri diran
nere semien paltiak,
ta ortatikan izan ditugu
familirako kaltiak.
Ai! Penotsuak izandu dira
pasa ditudan urtiak,
kastigu oyek izandu dira
gogorak eta fuertiak;
emen izango al ditu, arren,
beste munduko partiak.

JOXE ZAPIRAIN



Bertso batzuek jarriko ditut jendiari adieratzeko, kulpaçik gabe sar giñuztela giltzapian egoteko. Ori gertatu biar zuenik iork etzuen usteko; ez det biotzik gertatu dana, aita, zuri esateko.

Negar malkuak saltatzen zaizkit gertaera au oroitziari, lau anaitatik -kulparik gabe- giltzape ortan bi il ziran; nola deitu giñuzten laurak, zoritxarrez, arratsian... Geroztik ezta pozik agertu, aita, gure biotzian.

Lengo fameli zoragarria orain ez dago zurekin: bi fusilatu, bi giltzapian daude, beste bik aldegin... Beratzi seme azi dituzu, orain triste irurekin; Jainkuak ala nai zuen eta etzazu negarrik egin.

Peregrinua bezela gatoz, egun bateko egoitza, kia bezela aitutzen baita gure munduko bizitza; egin biarrak atzera utzi, engañaturik gabiltza, Jaunan eskutik etortzen dira osasuna eta gaitza.

Zer da mundua? Zer alaiagarri daukagu au maitatzeko? Gure biotzak zer billatzen du emen ondo bizitzeko? Dana tristura, dana negarra, aberats pobrientzako; zoratzen egon biar genduke mundu ontatik juateko.

Bi anai maitek alde egin dute, jon dira emendik bestera; negarrak utzi eta betiko zerua irabaztera; laister guk pasa biarra degun biria erakustera, orain bakarrik ba'gaude ere berriz elkartuko gera.

Egun gutxien aurria artu digute gure anayak, ayen ondora itzuli nai du gure biotzeko nayak; penak utzita igarotzeko zeruan egun alayak; noiz ez dakigu baño «laister dek» egingo digu Artzayak.

Beti deika ementxen gaude jarririk gora begira, ayen animak pozez beterik arkitzen diran tokira; badiui Jaunak esaten dula, izar ditziren argira: «Ni oso maite niñuten eta nerena etorri dira».

Zori oneko nere anayak joan diralako emendik, pozik ez dagon mundu argal ta galdutakua ontatik; zeruan daude beti gozaten, lagunduko digute andik; kendu itzazute zuen malkuak, bizi dira-ta oraindik.

An goyan dago zeru ederra, atsegin guziz betia; mundu onetan asko sufrituz irabazten da joatia. Jesus'ek berak, bere eriotzaz, zabaldu zigun atia, berriz ere an juntatuko da gure famili maitia.

Bi seme itzul egin dizute, penetan emen utzita, pazientzia ar zazu beti, Jaunak ala nai zuen-ta. Jaunari semiak ematia oso pozgarria baita; gaurtik aurrera egin zerade bi seme martiren aita.


Altza guztiyak ondo badaki gure berrri ikusiya, kastigu au ez degula izan obra txarrez mereziya. Jainkuak berak bialtzen digu ar zagun pazientziya, zeruan noizbait kobrauko degu munduan irabaziya.

Agur! O, aita! Ez zaite aztu: egin itzazu otoitzak, Jainkuak berak arindu ditzan gure naigabe zorrotzak. Ortik urruti alendu dira gure biotzeko pozak, agur egiñaz laztandu ainbat maitatzen zaitun biotzak.

Barkaziya eskatzen dizut gure gaizkille danentzat, gaizki esakan ta gezurretan aritu zaizkitzunentzat; gure biotzak etzala izan otoitzak baizik oyentzat, ayek eta gu izan gaitezen betiko Jaun Onarentzat.

Agur, aita; ta agur, anayak. gañera parientiak; agur ezagun, ongille danak, otoika zauten tristiak; preso gaude-ta ezin etorri, gure senide maitiak; agur, ba, agur, ta ondo bizi libre zaudezten guztiak!

JOXE ZAPIRAIN



Xabier gazteluan

UXOLA

Urratsak geldi eta jarri naiz pensatzen zer-nolako tokia gauden bixitatzen; zeruak berak ere du errespetatzen Xabier gure Santua emen jaio bai-zen.

Urrutiko lurdiak, Sortaldeko ondartzak ikusiak zituzten onen egin latzak, bere gogo sutsua ar arrigarritzat mundu erdia nola ekar Kristo'rentzat.

Ez gudari, izkillu, ez eta kañoiak, baizik gurutzarekin ta bere doaiak, onela egin oi zitun irabaz guduak; Egia zabalduaz euskaldun Santuak.

ARABA LORAILLA'N

**Poztu zaitezte, Aitor'en semeak!
Alaitu oro, ilda ta bizirik!
Zuen alaba «azkenak» poz-pozik zautu bai ditu «bere» senideak...**

**Illaren zortziren Auteskondeak!
Iru aizpa maite-maiteak gaurtik JEL'pean kutun-kutunki baturik beteko dituzte gogor xedeak...**

**Atzarri zera, Ama zentzuduna:
au izan bait da «zeure» piztuera...**

Berriz izango zera euskalduna gero ta geigo emendik aurrera...

**Orain, Araba, Amalur kutuna,
«zazpigarrena» iñolaz ez zera!**

JOSU EXEA

Gasteiz, 1983, Loraila'n.



GAUZA BITXIAK



LODIAK, BAIÑA LOSARIK EZ

Orra or bederatzi emakume, zein baiño zein lodiago edo gizenagoak. Baiña ez dira lotsatzen. Lasai ta parrez daude guztiak. Gure orri auetako «Mediku zaarra» dalakoaren aolkuak ez dituzte aintzat artzen.

Zeihen zabal dauden bederatziak, baiña zeihen estu dauzkaten ukabillak! Edozein urbilduko zaie... Mamiz bezain orniturik baldin ba'daude indarrez, nork ez da beldurtuko oien ondoan?



BOTA GALANTA

Munduan bai ote da bota aundiagorik? Ez noski. Lurretik goruntz, 1,80 metro ditu, zaba-lean 1,20 metro. Kiloz ere ez da txantxetako: 200 kilo aundi.

Ez da, ordea, edo «Pulgarzito» zelakoak mendien gaiñetik ibiltzeko zerabilkiana. Bai zera! Au, bakarra da ta Hanburgo'n dago. Zertarako? Jendeak ikustera urbidu-erazteko ipiñita dago, aldamenean daukaten oiñetakodendan erosketak egitera dei egiñez.

Asmatu egin zuten ori ere. Saldu nai duenak, orrela nekatzen du burua.

PATATA... SIÑISTU EZIÑA

Alaxe da mundua bereganatu duan landarea. Prantzesez «**lur-sagar**» «**pomme de terre**» deitua. Nekazari bizimodua arindu, mokofiñak gozatu, guztion asegarri naiz lurperatua jaio. Arrigarri zaigun landarea. Indioak «papa» deitu zioten. Prantzisko Pizarro ta bere gizon bulartsuak izan ziran lenengo ikusi zuten europatarrak, 1530 urtean Peru lurraldean ibilli ziralarik. Ez zuten asko uste izan zer nolako altxorra zeukaten ankapean. Zaldi gañean Atahualpa Inca'ren atzetik eta onen urre billa zebiltzalarik.

«**Papa**» landare ura 50 urte ondoren Europa'runtz ekarri zuten ta geroztik «patatak» mundua bereganatu du. Inca'ren Imperioa desagertu zan aspaldi: España'ko aunditasuna ere bai. Baiñan «patatak» errege jarraitzen du. Eta bearrik! Ez ezen landare onek giza-diari eman dion ondasuna ikusiz, Peru'ko urre guztia arri koskorra besteriz ez da. Gaur egun bere buruaren jabe diran 167 Errialdetatik 130'n patata ereiten da. Urtero au erosiz gastatu oi dan dirutza, prezio arruntetan neurtua **106 billoi dollar** igotzen omen da. España'k bere denbora guztian, beñere ez zillar eta ez urretan Ameriketa'tik ateratzena baño geiago. Bataz beste urte buruan 291 milloi tonelada pixu duan uzta biltzen omen da. Bestela ere, patata ain degu bixigarri, Eskandinavia'ko lur otzetan ere gizon bat patata janez 300 eguñean bizi daitekela patatari zerbait margarina igurtziaz.

Iru kilo patatak 2.500 kalori berotasuna ematen du, gizon batek bizi izateko bear añakoa. Golde-lur batean ereindako patatak gari edo beste edozein alek bi ala ematen ditu. Eta ezetasuna galdu ta igartzen dalarik aragi ta arraiak bezen bat «proteina» gaia eskuratzen digu. Patatarik gabe aragia ere gutxiko litzake salneurriak ezin esan ala igo araziaz. Patatak ordea ez dizu balio jateko bakarrik... Destilatu ala lurrindu ezkeru «vodka», pattarra eta beste edari biziak sortzen dizkitzu. Eta au ez dala aski.. edo geiegi... «Automobilla»



erabiltzeko «erregaia» patatatik errez atera daiteke. ¿Batez ba al daki zer besterako ez dan gauza? Ona zergatik degun landareen errege! Zerbaitengatik Indioek deitzen diote: «**ALU**», alegia gutzirako on dala! Lur gutxiagoan gari ta beste aleak baño geiago ta ugariago omen oi du etekiña. Ondu ta eldu 90-120 egun barru iritxiko zaizu. Leen esan ba' degu proteinaz ugaria dala, orain erantsi dezagun gizon batek bear duan Vitamina C berekin daramala. Orregeatik aspaldiko itsas-ontzietan ere zuten patatarik aztuko eskorbuto gaitza galerazte arren. Itsas-kapitan ta mariñel gizonak ugarte batean galdurik gerta ba'zitekean, patata saku batzu ba'zituzten luzaroan iraun zezateken. Edozein lekutan girotzen dan landarea degu. Bai Holanda'ko itsas azpiko lurraldeetan; eta bai Andes eta Himalaya goietan. Artikoan edo Antartikoan dala berdin! Ori bai! Bero zakar ezeak kalte ta gaitza egiten dio, baiñan ozkiro zerbait sortzen dalarik laister piztuko da. Gure patata! Gure etorkizunean ez jakin artaz noraño baliatuko geran. Gasolinaren orde ez erabili dezakegula esan dizutegu. Henry Ford automobilgille ospetsuak antz eman zion eta Europa'tik patata landarerik onenak ekarri arazi ziotuan. Jakintsuek diotenez patata golde-lur batetik **1.200 galon** ontzi urtean atera omen daitezke. Sovietak eta U.R.S.S. dira patata sail aundienak ereitzen dituztenak. Errusia'rentzat patata da «**bigarren ogia**» bezala. Polonia atzetik dijoakio. Eta Amerika'ko U.S.A. altsua a bi oiei begira. Azken gerratean Sovietarrok gaizki ibilliaz ziran aleman nazitarrok Panlowska patata-azitegui aundia ondatu ziotelarik. Eta beldur ziran patatarik gabe alemanek garaipena lortuko ez ote zioten. Euskaldunok gure txikian patatari opa bear diogu garrantzi osoa. Zorionez Araba'n degu lur onenetakoa orretarako ta bera izan daiteke Euzkadi'ko aberastasunaren iturri.



IBALAN

Iruu hiria 1983. ko literatur sariak

Bere eginkizun sozio-kulturalaren barruan Gipuzkoa'ko Aurrezki Kutxa'k, Irun'go Udalarekin, 1983'ko Irun Sariretako deia egiten du bere XIV'gn. urtean, jarraiko oiñarrien arabera:

1.-Euskaraz eta espainieraz idazten duten guziek partehar dezakete; obrak originalak, argitaratu gabeak, aurkeztu behar dira.

2.-Foliotan bi lerroko tarte utziz eta alde batetik mekanografiaturik idatzi eta alde batetik me-

kanografiaturik idatzi bear da; hiru kopia bidali: Aurrezki-Kutxa, Garibai Kalea, 13-15, DONOSTIA. Epea, 1983'ko Abuztua'ren 31'n bukatzen da.

3.-Lanak, lemapean, obraren izenburua ezarri; baina egilea nor den xehetasunik ez da jarriko; kartazal itxi batetan, egilearen izena, abizenak, etab.; kanpoaldean, lema ta saila.

4.-Gipuzkoa'ko Aurrezki Kutxa'k izendatuko ditu epaimahaikoak; erabakia, apelaezinezkoa da.

5.-Erabakitzea ta Sarien ematea. Irun hirian egingo da 1983'ko Azaroa'n.

6.-Edozein sari utz daiteke eman gabe, kalitate-mailarik erakusten ez ba'dute.

7.-Gipuzkoa'ko Aurrezki Kutxa'k gordetzen du saritutako obraren argitalpen-eskubidea.

8.-Saritua izan ez diren obrak interesatuei bidaliko zaizkie.

SARIAK:

IPIUNA («Juan Thalamas Labandibar Saria»). Hedadurak 6 eta 10 folio bitartekoa izan behar du; gai eta narrazio librean. Gaztelua eta **150.000 ppta.**

POESIA («Jose Artetxe Saria»). Errima, neurri eta gai librean; gutxienik, 800 bertso. Gaztelua eta **300.000 ppta.**

ELEBERRIA. Hedadura 125 foliotakoa izango da gutxienik, gai eta narrazio librean. Gaztelua eta **500.000 ppta.**




Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA



Baztan

EGON-LEKU BERRIAREN EDEKITZEA



Elizondo'ko «Miserikordi» zaharra haundituz eta berrituz Egon-Lekua edo Erresidentzi berria egin da.

Joan den Apirila'ren 30'ean ospatu zen Elizondo'n zaharren Egon-Lekua edo Erresidentzi berriaren edekitzea edo hastapena. Egon-Leku berri hau lehenagoko Miserikordi zaharrean egina da, haundituz eta berrituz, aurrerapen guziekin hornitua eta arras ongi apaindurik, Zaharren Egon-Leku berri hau izaten ahal den Etxe zoragarriena bilakatu. Lehenagoko Miserikordi zaharra 1858 garren urtean eraiki zuten, Franzisko Joakin Iriarte Jaun baztandar ospetsuaren laguntzarekin, hortaz datorkio ezarria daukan izenburua eta izen horrekin deitzen dugu Miserikordi berri hori ere. Ehun eta hogeita bortz urteren buruan eta Nafarroa'ko Diputazioaren laguntza osoarekin zaharren Etxea berritu eta haunditu dute. Egon-Leku berri hunek badauzka 88 gela, dobleak eta bakar-kakoak ere. Eritegi, Garbitoki, Janleku, Kafetegia, Sala andana bat, egonleku, josteleku, bisitakoak eta bertze. Liburutegi, llemoztegi eta Kapera. Hoiiek guziak eta gehiago ere. Miserikordi berriaren badago 140'entzat lekua. Orain bai omen dira 60'en bat lagun, baina erraiten dutenez laster beteko omen da.

Ez dira arras pobreak bakarrik hor direnak, baita ere joaten ahal dira erretreta hartu dutenak eta bakarrik bizi direnak, senar-emazte zaharrak, mutil-zahar eta neska-zahar, alargun eta holako. Baztandarrak dira gehien gehienak baina Nafarroa'ko bertze lekuetatik ere etorri dira bereziki jende euskalduna.

Apirila'ren 30'ean egin zen Egon-Lekuaren bedeinkazioa. Nafarroa'ko Diputazioko Jaun Aintzindariak hor ziren, baita ere Baztango'ak eta jende aunitz bedeinkazioaren zeremoniara etorriak. Elizondo'ko Korala hor ginuen eta bai Arizkun'go dantzariak ere Baztan'go dantzak ederkixko erakutsi zituztela.

Zeremoniaren otoitzak eta hitzaldiak euskaraz eta erdaraz egin ziren, baina gure mintzairari ohore gehiago emanik. Ondotik Etxearen ikustaldia nahi zuten guzientzat. Azkenik Janleku sala nagusian «lunch» edo «aperitif» bat denentzat. Egon-Lekuaren zeremoniak eta hastapenaren ospakizunak holaxe egin ziren. Baztan'go zaharren Etxe haundi hori zorionezko Egon-Lekua izan dadiela. Gure goresmen eta laudorio kartsuenak «Franzisko Joakin Iriarte» deitzen den Egon-Leku miresgarri horren egileei.

M. IZETA

Doneztebe

DONEZTEBE'KO «JOXEPA» IL DA

Doneztebe'ko «Joxepa ostaua», egia esateko, guztiz ezaguna da.

Eta ostatu ortan, berriz, denetan ezagunena ta ospetsuena, bertako etxeoandrea, JOXEPA ta ortatik ostatuaren izena ere.

Berrogei urte ta geiagoan, jaki goxorik aski gertutu ta eman dute etxe ortan. Sukaldaritza berezia, apartekoa, atsegiña ta aorako gozoa batetik, eta arrerarik atsegiñena bestetik: orra or jatetxe orrek eskeintzen duena.

Eta ostatu ortako bereziena, etxeoandrea bera zen, gure Joxepa. Alakoxe sukaldari trebea zen, eta gaiñera alakoxe arrera alai ta jatorra egiten bai-zien guztiei.

Joarrailla'ren 14'an egin zizkioten illeta-elizkizunak Doneztebe'ko elizan: bost apaiz aldarean mezemaille ta jendetza aundia eliza betean. Zerbait adierazten du ori guztiak. Goian bedi betiko zori onean Doneztebe'ko JOXEPA.

AINGIRA BIKAIN BAT

Doneztebe'ko Elizondo'tar Jose Mari arrantzura joan zen, amorrañak arrapatzera noski. Baztan ibaiko uretan zebillen, zubitik beera kaiñaberaren muturrean amua igorritz.

Alakorik batean, uste baiño tirakada aundiagoa. Zer ote? Amorrain aundiren bat? Bai zera! Aingira bikain bat, izugarria, luzea ta mardula: iru kilokoa.

Tamalez, urritzen eta galtzen ari dira aingirak. Ala ere oraindik badira Nafarroa'ko ibai ta erreka guztietan. Arriskurik aundiena, Erribera alde uretan daukate.

Aranatze

AMAR MILLA PIÑU ERRE

Nafarroa'ko erri polit onek badu auzo bat, Eguzkialdea deitua, eta andik urbil den mendi batean piñudi ederra zeukan. Baiña orra or, norbaitek su eman ziola aritz zaar eta igar bati, eta bereala su artu zuten piñuek. Amar milla piñu edo badira erre ta alperrik galduak. Galera aundiak dituzte oian bai Aranatze erriak eta bai bertako erriarrek. Nora goaz orrelako ondaketak egiñez?



Napar asko, eta beste euskaldun asko poztu izan dira garai batean, urte aietan sortu ziren bi euskal biribilkete-kin. Arrakasta aundia sortu zuten, ta besterik ez ziren entzuten Iruña'n, Sanfermiñetan, ta Naparroa osoan errietako jaietan. Uste dut ongi gogor- ratuko zeratela, emen ipintzen dituta- nean.

Bata, onela asten zen:

«Al gran pueblo pamplonés,
al pueblo pamplonés
salud y vida deseamos
los vasco-navarros».

Bestea, berriz, onelako asiera zuan:

«Goizetik altxa gaztiak,
sasoi dezuten guztiak,
jai eder ontan bildu
zarrak eta gaztiak».

Bada, azkeneko biribilketa au bera, musika berarekin baiñan Athletic bati dagokion gaiarekin eta bizkaitar eus- keraz artu dute beren «himno» edo bi- ribilketa bezela. Aurreko egunetan xildu gabe entzungo zenuten irrati eta

ikusirratitik, bilbotarren garaitza de- la-ta.

Baiñan, bai-al-dakizute nork sortu zituen biribilketa bi oiek? Ara, tolosar batek: Feliziano Beobide «Lexaka». Naiz tolosarra jaiotzez «Lexaka» dei- tzen zitzaion. Zergatik? Bere aita lesa- karra zelako, naparra, «Lexaka» izen- goitia gelditu zitzaion betiko, baita se- mearentzat.

«Lexaka», aita-semeak oso ospa- tsuak izan ziren. Aita oso xelebrea zen, lagunartekoa, txolartekoa eta zerabil- kian euskeraren ttanttoa guztiz atsegi- ñez entzuten zioten tolosarrak.

Semea, berriz, Feliziano aitaren pa- rekoa izan zen. Batez ere musikalari bezela trebea. Atsegin zitzaion «Le- xaka» deitzea gero ere musikalari ospa- tsua egin zenean. Tolosa'ko Musika Banda'ko zuzendaria izan zen, oposi- zioetan irabazia. Guztiz ospatsuak izaten ziren eman oi zituen kontzier- toak. Aldiro 4 edo kilo galtzen zituen... izan ere aren kemena!

Ikusten dugunez napar kasta nun-nai badabilke!

Beramendi

Udabe-Beramendi Kontzeju on- tako sailletan belardiak eratuko dituzte, ain zuzen ere erri-lurretan. Ortarako, 65 Hektarea lur gorrituko dituzte, bertako sastraka ta zu- gaixkak garbitu ondoren. Karez- tatu, ongarritu ta azia ereitea datoz urrena.

Obeki zaintzeko asmotan, 10.500 metro luzeko esiaz inguratuko di- tuzte saillak, eta oietara 4.365 me- troko bide berria egingo dute. Lan auk guztiak burutu aal izateko, 12.372.938 pezta bear dituzte. Di- rutza au oso-osorik Diputazioak utziko du orain, baiña gero erriak ordaintzen joan bear du, urtean milloi bat osterata itzuliz. Oso mese- degarria da diru-aurreeratze au, korriturik ez bait du eskatuko Di- putazioak.

S. ERBITI

Erronkari

EKOLOGIARI BURUZ

Oraiko denboretan, guziek ekustan dugu nola gore ungeria geroago ta obroago gaitzotan da, eta gaiza anitx galtan drela sekulako. Nexargarri da.

Gore mendietarik abre eder anitx xoan dra berze mendi go- ragoetra, edo il dra azkenak.

Genteak ezta goartan, eta atze egin tei abre koriek. Oraiko gaz- teek eztei ekusi, egoal gaitzoz.

Azkue gore adeskide andiak, bere Eletegi famatu kartan, berri bat emoiten daikugu erranez: «Obro ezik ein **mendiollar** il tu aurten jein batek gore irian».

Ene gaztezutuan Uztarrotze'ko egoatxan, Izaba'ko altekan, «E- perraren Zubia»n bustitan gin- tzen, eta gore ungerian **mendio- llarrak** ebiltan zren boztarioz.

Non daude orai txori eder ko- riek?

KOPLAK KANTATAKO

Karrika gaintik goatza mitilak musikareki, gitarrez erraiten dugu bordaltako goreki.

ERRAPENAK

«Adexkiderik bage bizitea da orobat nola testigorik bage iltea.

J. ESTORNES LASA

ATHLETIC TXAPELDUN


Athetic bilbotarra
Liga ontan jokatzan,
guztietan onena
agertu da aurten;
altxa du gallurrera
euskaldunen izen,
berarekin txapeldun
nabaitu gaitzen.

Bilbotarra trebea
agertu ba-zaigu,
Real Donosti'koak
pozik jarri gaitu;
euskal futbolariak
goi ibil zaizkigu,
bata txapeldun ba'da,
besteak inguru.

Gaur ez gaitzen aztu
napar «Osasuna»-z,
berek egin ditu
mailla eutsi naiaz;
gogoal dun ezkeroz
bizi euskaldunaz,
a zer irukotea
anaiki jardunaz!

«OSASUNA»'K 1'GO MAILLARI EUTSI DIO!





KIROLAK

Pelota: RETEGI II, TXAPELDUN



Pozik egon daiteke Nafarroa; egun aundia izan zen Lorailla'ren 1'goa. Garaikoetxea Lendakaria Donosti'ko «Anoeta»'n pilotariekin, iruak naparrak izaki.

Nafarroa'rentzat egun aundia izan zen Lorailla'ren 1'goa. Esku-pelotan Txapelketaren azkena jokatzeko zuten Donosti'ko «Anoeta pelota-lerkuan», ain zuzen ere bi nafarren artean zegoen

borroka: RETEGI II ta GALARZA III.

Pelota-lerkua gairazka beterik jendez, biotzak pil-pil eta kezkatu, nork irabaziko asmatu eziñik. Bi pelotariak oso onak eta bien artean zein nagusi-

tuko? Partidu luzea, gogorra: 259 joaldi eman zizkioten pelotari 79 minuturen buruan.

Aurreko urtean 5 tanto baiño geiagorik ezin egin izan zuen Galarza gazteak. Baiña aurten zenbat egingo? Eta irabaziko ba'lu partidua? Asieratik bi tanto Retegi'k sakez. Aurrera doa partidua, 8 ta 6 diren unean, eguerdiko ama-
biak: guztiak ixildu ta «Anjelus» errezatu zuen apaizak, antziñako oiturari jarraituz.

Ona: emen zer-nola joan ziren tantoak: 9-6, 16-6, 16-7, 16-8, 16-9, 17-9, 18-10, 18-11, 18-12, 18-13, 19-13, 19-14, 19-15, 19-16, 22 ta 16 gelditzeko: Retegi II txapelkun eta Galarza bigarren.

Beti bezain seguru ta gogor Retegi, baiña Galarza ere bizkor eta indartsu. Bientzat izan ziren txalo ugari partidu osoan, eta azkenean geiena.

Oso-osorik eman zuen partidua Euskal Telebistak eta an agertu zen Garaikoetxea Lendakaria ere, pelotari napa biei garaipen-sariak eman eta besarkatzen, iruak naparrak izaki. Pozik egon daiteke Nafarroa, Gipuzkoa'tik eta Euskalerra osotik pozez beterik txalotu bai-dituzte pelotari naparrak.

Argi ta garbi ageri da, naparrak ere besteak bezain euskaldun direla, bai beren izkuntza euskeraren bidez eta bai pelota-joku zoragarriaren bidez.



Futbol:

«ATLETIK» TXAPELDUN

ETA

«OSASUNA» AURRERA

Euskalerra osoan guztiz aundia izan zen Lorailla'ren 1'go eguna. Batetik pelotariak Gipuzkoa'n bestetik Bizkai'ko ATLETIK txapelkun atera zen España'ko futbolarien artean. Baiña Nafarroa ere oso pozik, OSASUNA bigarren maillara jetxi gabe, aurrera jarraitzeko bidean gelditu zelako.

Beti kolokan eta eziñean ibilli ba'da ere OSASUNA, egun ontan kementsu jokatu zuen eta azkenean Barzelona aundiari irabaztea lortu baitzuen.

Bizkai'koak Las Palmas'tik, naparrak Iruña'tik, etengabean elkarri zorionak eman ez izan ziren, gauean irratien bidez, ATLETIK taldeak zazpigarren aldiz lortu du Txapelkun izatea. Eta oraingoan sekulako telegrama-pilla artu zuen Las Palmas'en bertan. Izan ere Atletik taldeak berekin darama aspalditik Eus-

kalerria'ren ordezkaritza, eta ez bilbotarrena bakarrik.

Aurtenetxe jaunak esan zuenez, eta jaun onek berak irratiz esan zuenez, pozik aundiena eman zien telegrama, ain zuzen, Garaikoetxea Lendakari jaunarena izan zen: «Zorionak zuei, baiña bilbotarrok txalotzean, zuekin batera, «Osasuna» napa eta euskalduna ere txalotzen utziko didazute noski, futbol-talde anaiak direnez».

OSASUNA futbol-taldearen lendakari den Ezkurra'tar Fermin jaunak irratiz onela esan zuen gau artan berean: «Lenengo, zorionik gartsuenak ATLETIK osoari, eta urrena eskerrak eman nai dizkiogu gaur, bene-benetan, Garaikoetxea'tar Karlos jaunari, gurekin oroitu delako ta itz biotziak esanez gairera, biotz-biotzetik zorionak opa izan dizkiogulako».



Or dugu OSASUNA Taldeko gidariaren kiñu ederra. «Nik banekien zein joana den Xabier'ko Gaztelura...» esango digu gabean Goizueta'ko mutillak. (F. EZKURDIA argazkia).



SUMARIO

1: **PAKERAKO MAIA, UTSIK...** La Mesa para la Paz de Euskalerría, desierta; su desolada imagen ahorra comentarios.

2-3-4: **EUSKALERRI'KO LEIOA.** Noticias, comentarios; Acuerdos; Elecciones 8-M; Día de las Ikastolas, etc.

5: **GIZENTASUNA.** Obesidad: sus fatales consecuencias. **MEDIKU ZAARRA.**

6: **EUN URTE MARX IL ZELA.** Desde Marx el mundo no es como antes. **ASTEKARI.**

AMA TERESA BIZIAREN ALDE. Teresa de Calcuta por la vida: no los matéis, dádme-los! **ASTEKARI.**

7-8-9-10: **BERTSOLARIA:** bersolarismo, J. Gaztañaga.

JOXE ZAPIRAIN, bertsolari del dolor: «Joven y sin mujer, y con diez hijos»; «Dos hijos fusilados, otros dos presos, y otros dos sin saber dónde andarán», **EGI'TAR BI.** Versos de **UXOLA** y **JOSU EXEA.**

11: **GAUZA BITXIAK.** Tomando a risa la gordura esa.

12: **PATATA... SIÑISTU EZIÑA.** La increíble patata, la increíble pepita de oro que los españoles encontraron en América; **IBALAN.**

13: **ERRIZ-ERRI.** Por los pueblos: Baztán, Aranaz, Santesteban, Tolosa, Roncal, Basaburúa; **M. IZETA, UXOLA, J. ESTORNES, S. ERBITI.**

15: **KIROLAK.** Deportes. Pelota: Retegui II, Txapeldun! Fútbol: «Osasuna» -¡salvado!-, flotando en las aguas de Primera. Y el Athletic, Campeón!

16: **«KILI-KILI» TA NAPARROA.** Don Joaquín Lizarraga, un gran escritor euskérico del Valle de Egüés. Nos lo recuerda «KILI-KILI», la grata revista vasca infantil recién recuperada.

SALMOEKIN OTOITZEAN. Orando con el Salterio; libro excelente, para hacerlo en euskera, con la buena versión preparada en Estibaliz. **ASTE.**

«KILI-KILI»TA NAPARROA

Aurreko alean, pozaren pozez, egin genion ongi-etorria «Kili-Kili»aldizkari politari; umetxoentzat zeñen lagungarri ona den, adierazi genuen.

Orra, ordea, urrengo «Kili-Kili» aldizkariak Naparroa'ko idazle bat goraltzen duela. Bizkai'tik datozkigu euskal idazle napar baten berri emanez.

Eskerrik aunitz, «Kili-Kili» aldizkaria ateratzen duzuten adiskideok. Ederki ezagunerazi diguzute gure idazle naparra; eta, gainera, naparrok ongi aditzeko eran. Noiz eskribituko dute naparrek Lizarraga andiaren berri? Baiñan «euskarán», Elkano'ko apezak bezala...

JOAQUÍN LIZARRAGA

Joakin Lizarraga'k asko idatzi zuen euskeraz, baiña zoritxarrez ezin izan zuen argitaratu liburu bat ere. Euskal idazle askori gertatu izan zaiena gertatu zitzaion oni ere.

Naparra degu Lizarraga, Elkano deritzan errikoa. Eta napar eraz idatzi zuen, bere ingurukoek egiten zuten eran: ego-aldeko goinaparreran. Euskalki au zen Iruña'n ere orduan egiten zena. Eta euskalki au omen zen oraindiño aintzina ez dela Euskalerría'n zabalena; gaur, zoritxarrez, galdua da! 1868 garren urtean zioen Bonaparte'k: «Oraindiño ogeitamar urte direla auxe zen izkelkietan zabalena».

Bonaparte aitatu degun ezkerro, Lizarraga ez zuela ezagutu esan bear degu, baiña asko maite zuela. Berak argitaratu zizkion, argitaratu ere, liburu batzuk.

Eleiz-gizona izan zen Lizarraga; 1748 garren urtean jaio eta 1766 garrenan, 18 urte zituela, Loiola'ra joan zen jesuita izatera. Urte bete bakarrik egin zuen bertan; jesuitak urrengo urtean sakabanatuak izan ziren ezkerro, etorri bear izan zuen etxera. Alan da ere apaiz ikasketak egin eta eleiz-gizona egin zen. Bere jaioterrian izan zen parroko irurogeitaz urte, eriotz egunerarte, 1835 urtean.

Auexek dira argirara itendako bere liburuak:

«Urteko igande gustietaraco platicac edo itzaldiac». «Jesus. Copla guisa batzuk molde gutitacoac, celebratus Jesus Jaunaren amoreac ta favoreac». «Jesucristoren Evangelio Sandua Juanec dacarren guisara». «Francisco Jabier Santuaren bizitza», (1922).

Argitaratu gabeak asko dira. Or-emen daude sakabanatuta: Nafarroa'ko Diputazioan, Iruña'ko Seminarioan... Nork noiz argitaratuko zain.

kili-kili'k

«Salmoekin otoitzean»

Orain illabete batzuk argitara atera zuten Estibalitz santutegiko aita beneditarrek liburu berri bat, Salmoen bidez otoitz egiteko lagungarri egokia.

Liturgian erabiltzeko egin zuten salmo-liburuaren euskal-itzulpen ura oraindik osorik argitaratu gabe zegoen. Apaolaza'tar Aita Agustin'ek, (Estibalitz'ko beneditarrak) eratu duen liburu ontan aurki dezakezu, irakurle, itzulpen osoa.

Otoitzerako lagungarri egokia izan dadin, Aita Apaolaza'k oar batzuk jarri dizkio Salmo bakoitzari. Salmogillearen otoitz-bizikizuna gaurkotzeko ta biziberritzeko giltza bezala emanik daude argibide asko.

Salmo bakoitzaren ari nagusia ematen du lenengo, salmoa sortu ze-

neko giroa gogoan artuz. Gero, salmoko itz nagusiak: itzak eta esaldiak bein eta berriz aotan erabiltzeko giltza ematen du. Itun edo Testamentu Berriko argia ere badu salmo bakoitzak. Eta azkenik, salmoarekin egindako otoitz labor bat: salmoaren otoitz bera, baiña kristaubiotzetik igarota.

Edozein eratan naiz garaitan salmoekin otoitz egin nai duenak, edo beste norbaiti salmoekin otoiz egiten erakutsi nai dioenak, badu liburu ontan argi-bide ederrik!

Erosi nai dutenentzat, zeaztasun batzuk: Edozein liburutegitan, naiz Estibalitz'en aurkituko duzu. Liburuak 534 orrialde ditu ta 750 peztakoa du salneurria.

ASTE

